



Travel-Up SL

Kanalak:

Gure bezeroekin harremanetan jartzeko agentziaren aplikazioa izango dugu. Aplikazioa honen bidez, bezeroek gure agentziaren informazioa lortuko dute. Hemen, zer nolako zerbitzua eskainiko dugun eta nola funtzionatzen duen gure agentzia guztia ikusi ahaliko dute.

Gainera, aplikazio honen bidez, bezeroen datu batzuk izango ditugu. Datu hauen bidez, beste bezeroekin trukea egiteko momentuan segurtasun bat eskainiko diegu guztiei. Hau da, erregistratzen den bezero baikotzari, haren datu batzuk galdetuko diegu, eta horrela bezeroen arteko segurtasun minimo bat eskaintzeko gai izango gara.

Bestalde, bezeroek dituzten kezka agentziari abiarazteko posta elektronikoa edota telefono bitartez egingo dute. Izan ere, aplikazioaren barruan kezka atal bat egongo da, non bezeroek sartu ahal izango dira eta haien kezka azaldu. Gero, haien kezken erantzuna jasoko dute langile batengan denbora gutxitan, hau da, langile batekin hitz egiteko ahalmena izango dute, kezka argitzeko eta bere bidaia burutzeko arazorik gabe. Kezka horiek bi egun baino lehenago erantzungo genituzke.

Denborarekin, enpresa dirua irabazten hasten duenean, lokal bat erosiko genuke, gure enpresa hor jarduteko. Eta gainera, lokal honetan, bezeroekin elkarrizketak izateko aukera izango ditugu, haien kezka guztietan laguntzeko eta agentziari buruzko informazioa emateko aukera izaten.

Hala ere, sare sozialetan ere influentzia handia izateko helburua dugu, gure bezeroei haien bidez ailegatzeko eta gure agentzia bultzatzeko.

